

HAUSNARTU: EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIETARAKO DEIALDIA

Soziolinguistika Klusterra

Helbide elektronikoa: lionel@soziolinguistika.org

Hausnartu deitutako sariak antolatu ditu Soziolinguistika Klusterrak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) laguntzarekin. Sari horien helburua euskal soziolinguistika teoriko edota metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. 5 sari emango ditu Soziolinguistika Klusterrak 2008an.

Deialdi honetan euskal soziolinguistikaren arloan garapen teorikoak lantzen dituzten lan hoberenak sarituko dira. Asmo horrekin, kontuan hartuko dira euskararen gaineko berariazko garapen teorikoak nahiz kanpoan landutako gerapenetatik abiatuta gure hizkuntzaren egoera aztertzeke eta ulertzeke egokitzapenak.

Asmoa hauxe da: dagoeneko euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena izan duten ikerlarien lana bultzatzea eta oraindik harremanik izan ez duten ikerlariak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea. Modu horretan hizkuntzaren eta soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarri teorikoak zabaldu eta aberastuko dira. Gonbidapena egiten diegu, beraz, giza eta gizarte jakintza alorretako ikertzaile guztiei deialdian parte hartzeke. Izan ere, jatorrizko lanen oinarri teorikoa edo ikuspuntua ez du zertan izan behar soziolinguistikaren arloari lotua; hau da, zuzenbide, soziologia, ekonomia, psikologia, historia, geografia, gizarte psikologia, antropologia

edo beste adar zientifikoetatik abiatutako planteamendu teorikoak euskal soziolinguistikaren eremura egokituak izan daitezke, kasu askotan. Bestela esanda, soziolinguistikatik bertatik egindako garapen berriak ez ezik, beste adar zientifiko horien ekarpenak ere bultzatzea da sari hauen xedea.

Hortaz, aurkezten diren lanak oinarri zientifiko sendoak izan beharko dituzte.

Hausnartu sariaren oinarriak:

1. **Hausnartu** sariaren helburua euskal soziolinguistika teoriko edota metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. Aurkezten diren lanak euskararen gaineko berariazko garapen teorikoak nahiz kanpoan landutako gerapenetatik abiatuta gure hizkuntzaren egoera aztertze eta ulertze egokitzapenak izango dira. Lanak teorikoak, teorien aplikazioa edo ikerketa aplikatuen ildo berriak jasotzen direnak izango dira eta aurretik argitaratu gabeak.

Jatorrizko oinarri teorikoa edo ikuspuntua ez du zertan izan behar soziolinguistikaren arloari lotua. Beste zientzia arlo batzuetatik euskararen egoerara egokitutako lan ildo batzuk aurkeztu ahal izango dira (antropologiatik, historiatic, informatikatik, fisikatik e.a.)

2. Egilea bakarra edo lantalde bat aurkeztu ahal izango da. Ondorengo datuak jaso beharko dira:

- Egile guztien izena eta bi deitura
- Helbide postala zein elektronikoa
- Telefono-zenbakia
- Lanbidea: Irakaslea, ikaslea, euskararen gaietan profesionala, euskaltzalea e.a.
- Lantokia, hala badagokio: Unibertsitatea, Fakultatea, e.a.

3. Aurkezten diren lanak oinarri zientifiko sendoak izan beharko dituzte, eta luzaera mugarik ez badago ere, derrigorrezkoa izango da 30000 karaktere (hutsunerik gabe) dituen laburpen bat bidaltzea, jatorrizko lana muga horietatik kanpo badago.

4. Lanak word formatuan bidali beharko dira eta irudi batzuk ere eduki ahal izango dituzte.

5. Epai-mahaia. Soziolinguistikan adituak biltzen dituen lantalde batek ebaluatuko ditu jasoko diren lanak. Epaimahaia osatuko duten kideak honako hauek izango dira: Soziolinguistika Klusterreko kide bat, HPSko ordezkari bat, BAT Soziolinguistika Aldizkariako ordezkari bat. Aurreko mahaikideren bat ordezkaria izan daiteke euskal soziolinguistikan aditua den beste pertsona batekin.

6. Sariak. Lehenengo saria 600€koa izango da bigarrena 300€, hirugarrena 200€koa eta laugarren zein bosgarren tokietan sailkatutako lanek 100€ jasoko dituzte.

7. Lanen zabalpena. Lan hoberenak BAT aldizkariaren ale berezi batean argitaratuko dira. Horretarako, aurkeztutako lanak 35.000 karaktere baino gehiago baditu, 25.000-30.000 karaktereko laburpena argitaratuko da.

8. Lanak 2008ko irailaren 1erako bidali beharko dira ondorengo helbidera: lionel@soziolinguistika.org.

9. Artikuluak lionel@soziolinguistika.org helbidera bidali beharko dira.

Deialdiaren oinarriak www.soziolinguistika.org webgunean aurkitzen dira.■